

Aitor Arana

*Amodioaren
gazi-gozoak*



 kin

IBAIZABAL

Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abegitsuz harrera onekoa, atsegin	Eta orduan amona ikusi dut, han eserita, niri irri egiten; esku bat luzatu eta beragana hurbiltzeko esan dit keinu abegitsuz sutondoan esertzera gonbidatuz.	45
abelgorri azienda, ganadua, behiak-eta	Abelgorriak hazten ditu, ondoren okela saltzeko.	230
abere animalia domestikatua	—Hau dun abere ederra, Miren!	125
adabatu txaplataduna, zati konpondua	Bere praka zahar eta adabatuetan sartu ditu eskuak eta irri egin dit.	164
adore kemena, ausardia	Batzuetan maistrari esango nioke etxean gertatzen dena, baina ez dut adorerik izaten.	34
ahapeka xuxurlaka, isilean	Gaur behiei belarra ematen ari gintzaizkiela, Luisek ahapeka esan dit Julian jaunak Migeli buruz hitz egin diola kezkatutik.	127
ahaztarazi ahantzi, atzendu	Dena dela, hori arratsaldean izan da, txerria hil baino lehen eta zorioneko txerriaren kontu horrek gauzak pixka bat ahaztarazi ditu.	96
aienatu uxatu, aldendu	Trumoiak tximisten dantzarako danborrak jadanik jotzen hasita zeuden eta tximistak agertu bezain azkar aienatzen ziren.	57
aipatu aitatu, zerbait izendatu	Eta orain Julian jauna aipatzean konturatu naiz berriro nabilela harira joan gabe, inguru-minguruka.	153
alargun emaztea edo gizona hil zaiona	Hemen Maite Andrea bizi da, bere alarguna eta Iñaki ere bai, bi hauen semea.	241
amaraun armiarma sarea	Harritu egin nintzen eta botilez ahaztu, neure buruari galdezka amaraun edo hauts arteko egunkari hura zein urtekoa ote zen.	22
amuarrain arrankaria (<i>trucha</i>)	... amuarrainen bat harrapatzeko ahaleginetan.	100
amultsu maitasunezkoa, goxoa	Baina gauzez soilik, egunez beti bezain amultsua eta atsegina baita nirekin.	115
anitz asko, ugari	Gauza asko ikusi ditut bertan, paper asko irakurri eta gauza anitz ulertu dut.	176
antsia irrika, gogo bizia	Alabak jostailua nolako antsiaz besarkatu duen ikustean, malkoak irristatu zaizkio Fermina andreari...	94
arakatu aztertu, miatu, ikertu	Koadernoetako orrien artean arakatzen hasi nintzen ea ba ote zegoen han Mirenen erretratua.	82
arestian lehentxoago	Arestian idatzi dut hau azken aldia izango dela egunerokoan idatziko dudana.	227
argimutil argi euskarria	Gaur argimutilaz gain, kriseilu bat daukat ohe ondoan piztuta.	128
arkupe portikoa	...pixka bat gehiago hitz egiten du elizako arkupeetan beste emakume batzuekin.	30
arrapaladan arineketan, lasterka	Arrapaladan , ero moduan, eskopeta esku batean eta beste eskuaz uhalei helduz, basorantz abiatu naiz zelaian gora.	205
arrasto aztarna, seinalea	(zaldiazen zela ere lurperatu du arrastorik ez dadin egon eta zaldia bera kanpamentura eramango du beren zaldiekin nahasteko...	177
arrotz arraroa, estrainio	Batzuetan oso hurbil nabari dut nigandik eta urruti beste batzuetan, arrotz eta ezezaguna.	109
artega urduri	Artega eta dardaraka, zalditik jaitsi eta hurbildu egin natzaio bere ondoan belaunikatzeko.	206
asaldatuta inpresioa hartuta	Antzemango niokeen, zeren eta, asaldatuta bailegoen, Mirenek oso letra dardartiz idatzi baitzuen.	200
axola izan ardura izan, inporta	Niri, egia esan, ez zait gehiegi axola Migel medikua edo marrazkigilea izatea.	104



aztoratu asaldatu, larritu	Aztoratu egin zaio arnasa, begiak galdu eta hiru atzazal sartu dizkit eskuko azalean...	77
baretu ematu, baketu, lasaitu	Dantza gehiagorik ikusi ezinik, nire bihotza ere baretu egin da.	74
barren barnea, gorputza	Inoiz izan ez dudana ama xamurraren itxura hartu diot eta barrena bakez bete dit: on handia egin dit.	162
bederen behinik behin, behintzat	Etxea Imanolentzat gordeko dut, Ameriketatik itzultzen denerako, itzultzen bada, bederen .	227
behor zaldi emea	Orain behiak eta behorrak erosi ahal izango ditu.	183
belarrondoko zaplaztekoa, txaloa	Ondo jarri du segidan alaba ohean eta, beronek oihu egiteari uzten ez zionez gero, bi belarrondoko beldurgarri eman dizkio isiltzeko agintzeaz batera.	87
berantiar berandukoa	Baina orduan zalantza sortu zait: zer esan nahi ote zidan ordu berantiar hartan?	110
bere kasa bere kabuz	Ez duelako bere kasa ezer egiten.	95
beronek honek berak	Ondo jarri du segidan alaba ohean eta, beronek oihu egiteari uzten ez zionez gero, bi belarrondoko beldurgarri eman dizkio isiltzeko agintzeaz batera.	87
biagoa egin siesta egin, eguerdi ostekoa	Ia ez du ezer esan bazkarian eta biagoa egitera joan da arratsaldean ohera.	65
biraoa birao eginez, madarikazioka	Biraoa eta madarikazio batean ibili da Julian jauna egun osoan guztiz sumindurik.	117
biribilkolika txiribuelbaka	...amona eskaileretatik behera biribilkolika erortzen ikusi dut.	86
biziro biziki	Luisek esan dit ez zaiola horrelakorik egitea gustatzen, bera ez dela sudurluzea, baina nik hain biziro eskatu diodanez gero, egingo zuela.	138
brodatu orratz-hariarekin erliebeak egin	Hurbildu egin zitzaidan eta nik bere amantaleko tximeleta brodatu handian (...) erreparatu bitartean, ea zer moduz nengoen galdetu zidan.	11
buruaz beste egin suizidatu	...nik orduan ijito erasotzaile eta iheslarien aurka tiro egiteko erabilitako eskopeta berberaz egin du senarrak bere buruaz beste .	224
burusi ohe estalkia, manta	Bi burusi lodi ere utzi dizkit.	46
damutu garbatu, sentitu	Esan diot azkenik eta esan bezain azkar damutu zait.	88
dardarti mugimendua duena	Antzemango niokeen, zeren eta, asaldatuta bailegoen, Mirenek oso letra dardartiz idatzi baitzuen.	200
debekurik jaso eragozpena edo traba izan	Hankak zabaldu dizkit poliki eta ez du nigandik debekurik jaso ...	113
deus arean ez, deus ez, ezer ez	Eskerrak ilbeteari, bestela korrikaldi eroan ez genuen deus ikusiko...	206
edontzi basoa, edalontzia	Botila bat ardo eta edontzia atera dizkiot Tomas jaunari mahai gainera sukaldean sartu garenean...	187
egiatsu sinesgarria	Une batez burua bueltaka hasi zait azalpen egiatsu hark ez baitu inola ere nire samina arintzen.	214
egoitza eraikina, lekua	Hirugarren adinekoentzako egoitza txukun batean bizi da orain.	240
egundoko sekulakoa	...egin du guzti hark grazia minkorra baleuka bezala eta esku zabalaz mahaia jo du berriro, niri egundoko ikara sorraraziz.	140
ehortzi lurperatu, hilobiratu	Goizean amona ehortzi dute bertako hilerrian.	90



emeki ezarian, geldiro	Atea itxi du astiro eta nire ohera emeki hurbildu bitartean...	110
emeki -emeki kontuz-kontuz	Hala ere gurasoen poza nitaz jabetu zen emeki-emeki .	13
eraitsi jetzi, esnea atera	Luissek eta biok behiei esnea eraitsi diegu.	145
erostaka aieneka, kexuka	...lurrean ikusi dut norbait orbel artean etzanda, aieneka, erostaka .	206
errain semearen emaztea	Amona halakoetan isilik geratzen da, badakielako Fermina andrea, bere erraina , gezurra esaten ari dela.	51
erregutu biziki eskatu, arrenka	Fermina andreak ez joateko erregutu zion, galdu edota gaizki...	116
errieta egin bronka bota, agiraka egin	Nahiz eta, oso ondo jakin serio noiz hitz egin eta errietan noiz egin behar dion.	217
errukarri pena emanaz	Larri ikusi dut Ana arnasa hartzen eta bat-batean isildu egin da, modu errukarrian begiratu dit eta nik ez nekien zer egin...	85
eskuizkribu idazkia, dokumentua	— Bai. Ganbaran eskuizkribu zahar bat aurkitu dut eta horixe aritu naiz irakurtzen.	58
eskukatu esku artean erabili, haztatu	Hatzez ari nintzen koloretako orriak eskukatzen , amak logelako atea jo eta poliki sartu zenean.	11
eskutitz gutuna	Izan ere, postariak bi eskutitz eman dizkio gaur Julian jaunari.	138
ezari-ezarian ia ohartu gabe, apurka-apurka	...Mirenen eskuizkribua irakurtzeari lotu nintzaion ezari-ezarian , irakurketa errazteko bere idaztanka eta letrarekin lehenbailehen ohitzeko asmoz.	25
ezbehar zorigaitza, istripua	Beste ezbeharrik ez gertatzea da espero dudana bakarra.	90
fardel poltsatxoa	Amatxok apain-apain jarri nau eta fardela egin dit, barruan arropa garbiak eta jateko zerbait bilduz.	41
fardeltxo paketetxoa	Haurra fardeltxo bat bezala besapean zuela gelatik irten baino lehen, zera esan dit...	88
ferekatu xerak egin, laztandu	Haize gorria ikusi dut inoiz baino biziago belar hezea ferekatzen ...	119
ferra animalien apatxetako burdina	Eta zaldiaren ferrek bidearen kontra jotzean ateratzen zuten zarata entzutean, burua itzuli du eta ikusi egin nau.	43
galanki majo, polito	Galanki jipoituta hil omen dute, eta buruan adarren batez edo...	91
ganaduzain aziendak (abereak) jagoten ditue	Orain dexentetan bidaltzen naute arratsaldez etxetik kanpora ganaduzain .	62
gari-jotze aleak ateratzea	Gurasoek esanda dakit larrainean gari-jotzea eta horrelako lanak...	11
garondo kokota, lepoaren atzeko aldea	Baina berak esku bat jarri dit garondoan eta besteaz burua aurrerazi dit musu emateko asmoz.	170
giltzarri gakoa, funtsa	Neuk, jakina, historiaren giltzarriak direnak edota gauzak ongi ulertzeko beharrezkoak direnak idatziko ditut.	9
gizabidetsu errespetuz, edukazioz	— Bai, eskerrik asko — erantzun du gizabidetsu .	167
gizarajo koitadua, gaixoa	Egundoko girtenkada eman dio buruan Antonio gizarajoari .	173
goazeman goazen, abia gaitezen	Dirua mahai gainean geratu da eta Julianek besotik heldu dit " Goazeman! " zakar samar esateaz batera.	41



goibel triste	Galdegin diot emakume on hartaz goibel gogoratuz.	130
goraipatu laudatu	...irakurri eta idazteko hire zaletasuna goraipatu diola...	39
goxokiro emekiro, ezti, amultsuki	Antoniok ea zer nuen galdetzean, geratua esan diot eta goxokiro besarkatu nau.	190
grinatsu pasioz betea	Orduan, ziur aski, haize gorriak nire bihozkaden antzeko dantza penatu eta grinatsuak egingo ditu	69
harraska sukaldeko harria, garbitokia	Platerak harraskara eramaten nizkion bitartean, amak galdetu zidan...	18
hats espiritua, izpiritua	Berak niri ere bai, baina berea irri nekatua zen; hats gabea.	211
hazka egin arraskatu, hatzekin igurtzi	...Antionioren galdera erantzun baino lehen, mahai ondoan eserita, abokatuak ardoari begiratu eta hazka egin du buruan bere ile gris eta urrien artean.	187
herabeti lotsatia	Nik ez diot ezer esan, baina irri herabetia egin diot...	110
herentzia oinordekotza	...haserre biziak hartu zuen eta Mireni etxea eta herentziaren bere zatia eskatu zizkion.	199
hits goibela, tristea	Biharkoa oso egun hitsa izango dugu	231
hitz-aspertutxo berriketa lasaia	Dena prest edukiko duela esan digu eta hauetako edozein egunetan bere etxera gonbidatu gaitu hitz-aspertutxo bat egitera.	184
horail rubia	Handik bost bat minutura gona eta alkandora apainez jantzitako emakume horaila etorri zitzaigun eskua luzatuta.	242
hots egin deitu	Eguerdi aldean Fermina andreak hots egin dit, bazkaria prestatzen lagun niezaion.	84
hunan zen (hikan)	Jesusmari nire neba hunan .	101
hunkipen emozioa, inpresioa, zirrara	Zelaitxon haize gorria lehenengo aldiz ikusi nuen egunaz oroitu naiz hunkipen handiz...	194
hunkitu emozionatu	Ni hunkitu egin nintzen bere sentipen hartaz jabetzean, begi ia itsu haiek negar egiteko zorian ikustean, ea sentitzen nuela esan nion.	101
ihar lehorra, sikua	Pixka bat ibili naiz bertan eta nire gona luzeek lurreko belar iharra igurtzi dute...	224
iltze metalezko pieza, zura josteko	Ganbarara bidali nau aspaldi erabili gabeko iltze zahar batzuen bila.	61
ilunabar iluntzea	Eta joan egin da, poliki-poliki zaldiaren ilunabarrean , behe-lainotan emeki-emeki nire begi-bistatik aldapan behera desagertuz.	177
inguru-minguruka adarretatik, harira joan gabe	Eta orain Julian jauna aipatzean konturatu naiz berriro nabilela harira joan gabe, inguru-minguruka .	153
iratzarri itzartu, esnatu	Ulertu dut zein antsia ezkutu eta ezezagunak iratzarri nauen gau dextentetan azken urteotan.	112
irendu zikiratu, barrabilak kendu	Antoniori zauri beldurgarria egin diote aizto, nik zergatik jakin ez arren: irendu egin dute.	207
irrika gogoa	Eta bere eskutitzak irrikaz itxarongo ditut.	98
irrikatu biziki desiratu	Haurdun nago eta oraingoan, hainbeste urtean irrikatu ondoren...	193
irun artilea hari bihurtu	Iruten ari zen poliki eta ongi. Hurbildu egin natzaio eta begira geratu zait...	55



islatu erreflejatu, ispiluan bezala agertu	Baina aldi berean zorion-urte oparoak daude islaturik .	227
istil putzua, potxingoa	...paper gainera erortzen zaizkit malkoak teilatu ertzetik euri gutxi egiten duenean euri tantak istilean jausten diren bezala.	219
isuri jariatu	Hau irakurtzean, lehengoak ez bezalako malkoak isuri ditut bihotza uzkurtuta.	135
itolarri asfixia, itobeharra, itomena	Bart gertatuaz oroitu eta itolarria sortzen baitzait, amorru bizia ere bai, ezer egiterik ez izanagatik...	201
izerdi patsetan izerditan bustirik, blai	...ohean etzanda eta begiak zabal-zabalik izerdi patsetan .	85
jolasti jostalaria, olgetuna	Baietz esan digute beren seme-alaba jolastien pozerako eta gauzak ezin ziren hobeto atera...	195
kartazal gutun-azala	Migueli neuk idatzi ahal izateko helbidea, seiluak eta kartazalak Julian jaunari harrapa baniezazkioke...	93
kaskagogor burugogorra, tematia	Ez nuen uste hartaraino maite nituenik abere kaskagogor eta astakirten horiek.	155
kaskagorri ilegorriduna (<i>pelirrojo</i>)	...ongi ikusi dut Ana eta Migel kaskagorriak direla; ile gorri ikusgarria daukate biek...	45
kaskar erdipurdikoa	...aprobetxatuko nituen eta nire ingeles kaskarra hobetzeko ere bai.	11
kaskarreko kokoteko, buruan kolpetxo	Kaskarreko bat! Horixe da emango niokeena, galanta gainera!	141
kirtenkada paluarekin emandako kolpea	Egundoko kirtenkada eman dio buruan Antonio gizarajoari, erdi zorabiatuta utziz eskuak aurpegian.	173
kisketa ireki-ixteko mekanismoa	Atzeko kisketa jo du ni kanpora atera nendin.	179
koblakari trobadorea, musika jo eta kanta	...emakume honi hitza idazlumatik koblakari kantua ahotik baino errazago zeriola.	9
koitadu gaixoa	Oraindik hamalau urte bitartekoa besterik ez dun irakurri eta Miren koitadua zaharra izatera iritsi hunan.	103
konforme egon ados egon, bat etorri	...lagunak adierazi dit bera eta Fernando oso ondo daudela Tolosako etxean eta senarra konforme dagoela hilero niri ahal duten dirua bidaltzearekin.	135
kriseilu olio lanpara edo kandela duena	Zakurren batek zaunka egin du eta hiru pertsona atera dira larrainera, hauetako batek –emakume gizen batek– kriseilua eskuetan zuela.	44
lain beste, adina, bezainbeste	Ez gehiegi, baina bai gu ohartzeko lain .	218
laprastadaka labain eginez	Atzera egin du gelatik laprastadaka atereaz eta eskailera buruan gelditu da pixka batean.	86
larrabehi betizua, (mendiko) behi askea	Xanti larrabehiak ikustera zihoanean pasatu zen Berrotatik...	18
larrain landa, eremua	baserriko larrainean bazkalosteetan mahatsondoaren gerizpean josi, etxeko lanak egin eta gurekin paseatzea zen egiten zuena.	12
larrugorritan biluzik	Ez naiz konturatu gizarajoa larrugorritan zegoela eta besoak gurutzatuta zeuzkan sabel gainean.	207
leial fidela	Alai leiala da egun argiz motz eta denboraz luze hauetan daukadan lagun bakarra.	145
leize-zulo koba, osina	Bertako erreka eta leize-zuloak , ordura arte misteriotsuak eta jolastoki bikainak...	10
lo-kuluxka lotalditxoa	Joango al gara lo-kuluxka bat egitera?	17



magal malda, mendiaren alde bakoitza	Berrota, mendi magal batean zegoen eta Gorrimineta baserririk altuena omen zen	8
marmarka murmurikatu, ahapeka kritikatu	Eta behin asko gustatu ez zitzaidana gaineratu zuen, ia marmarka ...	11
marranta eztula, erlatsa	Oso marranta handia eta sukarra dauka.	33
masail matrila, aurpegiko aldea	Hunkipenezko zirrara nabaritu dut hau entzutean eta malkoak agertu zaizkit begietan ia-ia isurtzeraino, baina ez dira masailetan behera jausi.	130
mendiarte ibarra, harana	Mendiarte estu bat omen zen Gorrimineta delako hori...	8
minberatuta minduta	Ikusmina sortu zitzaidan eta sukaldera guraizeen bila joateko zutitzean, belaunak minberatuta sentitu nituen.	22
minkor samina, mingarra	...egin du guzti hark grazia minkorra baleuka bezala eta esku zabalaz mahaia jo du berriro, niri egundoko ikara sorraziz.	140
nagiak atera logura kentzeko besoen keinua	...galdetu zion amari nagiak atera ondoren.	17
negar intziri negar mainatxo	Bertako otoitz-marmara eta Martaren senitarteko batzuen negar intziriek urduri jarri naute...	231
negar-zotinka negar-hipaka, espasmoka	Dardar batean atera naiz gelatik negar-zotinka bere ondotik igaroz eta eskaileretan gora abiatu naiz ganbararantz.	88
odolustu odol guztia galdu	Okospean gakoa sartu eta ongi-ongi nekez heldu eta gero odolustu ondoren, gizonak garo iharrez erre diote ilea larrainean...	95
oinaze sufirimendua, pairamena	Bere oinazearen amaiera gertarazi du Antonio maiteak, bere oinaze zaharraren amaiera...	224
okospe kokotsa	Okospean gakoa sartu eta ongi-ongi nekez heldu eta gero odolustu ondoren, gizonak garo iharrez erre diote ilea larrainean...	95
oldar indarrezko bultzada (<i>impetu</i>)	Zuhaitzek adarrak makurtzen zituzten ekaitzaren oldarrari tente eutsi ezinik...	58
oratu heldu, atxiki	Ezkerrekoaz ireki du atea heldulekuari oratu z...	110
otu bururatu, okurritu	Une batez Zelaitzoz oroitu naiz eta ilargi eder harekin bereziki polita egongo zela otu zait...	205
otzan mantsoa	Elefanteak esaten dieten piztia beldurgarriak ikusi ditugu, baina laster konturatu gara behiak bezain otzanak direla.	35
ozta-ozta justu-justu, nekez	...Migeli astero huts egin gabe idazten badiot ere, berak ozta-ozta idazten dit hilean behin.	103
pagadi pago arbolen basoa	Gure baserria pagadiz jositako mendiz inguratuta zegoela	8
paraje lekua, bazterra	Aitarekin, Miren hainbestetan ibilitako parajeetan ibiltzen ginen arratsaldez, eguzkia ia mendien gainean zegoenean.	142
patxadaz lasaitasunez, presa barik	Patxadaz hartuz gero, ez zen hain txarra izango.	11
sakristau elizako laguntzailea, zaindaria	Medikua Joan ondoren, Luis etorri da basabehiak begiratzetik eta Julian jaunak sakristauarengana bidali du...	89
samin atsekabea, tristura, mina	Une batez burua bueltaka hasi zait azalpen egiatsu hark ez baitu inola ere nire samina arintzen.	214
sarde lau puntadun lanabesa	...ni handik igo naiz sarde bat eskuetan, belar-sardekada bat ekartzeko asmoz.	169
sargori sapa, bero itogarria	Sargori zela eta besoan tolestutako jaka dotoretik, kartazal batean txukun gordetako paperak atera ditu.	188



sasiko sasikumea, ume naturala	Zer gertatuko den? Ba sasiko bat ekarriko dunala mundura...	114
sastraka sasitza	Urruneko basamortuetan haize beroak sastraka lehorrak igurtziko dituen bezala.	224
satisfazio gogobetetasuna, plazera	Zaldi gainean alde egitean, pozik agurtu gaitu bere eginbeharra bete duenaren satisfazioaz .	189
sigi-saga ezker-eskuin mugitu, sugeak lez	Gaztainadi osoa igaro dut haren bila eta gero pagadira igo naiz sigi-saga .	124
sumatu igarri, nabaritu	Barruan sumatzen dut, arkumeak artalde handian bere ama ezagutzen duen bezala, luzaro idatziko dudala gau honetan, aspaldiko partez, beharbada.	152
sumindurik piztuta, haserre	Biraoka eta madarikazio batean ibili da Julian jauna egun osoan guztiz sumindurik .	117
sutsu suminkorra	Neba-arreben hitz sutsu batzuk ekarri dizkit.	67
tarteka-marteka lantzean behin, aldizka	...gure gurasoen haserrea tarteka-marteka sorraraziz Berrotara berandu itzultzeagatik...	10
total-total zezelka, hitzak errepikatuz	Ni guztiz izutu naiz eta, hankak dardarka, atzera egin dut bizkarraz leihoaren ondoan horma jo arte, total-total baietz erantzunez.	87
tupustean bat-batean, ustekabean	Horrela, tupustean entzunda, ez zekinat zer esan, baina Pernandorekin hitz egingo dinat eta ikusiko dinagu zer egin daitekeen.	132
txepel beldurtia, kakatia	Ez daki zein txepela den.	220
txingar gori-gori dagoen egur zatia	Ordurako txingarrak besterik ez zegoen bertan.	74
ubide kanala, erretena	...guk bertatik hartzen dugu etxerako ura, baina han ez dago errotek eduki ohi duten bezalako ubiderik .	15
ugaldu emendatu, gehiagotu	Eta bizarra ugaldu egin zaio eta ahotsa sendotu.	104
uhal hedea (larruzkoa)	Arrapaladan, ero moduan, eskopeta esku batean eta beste eskuaz uhalei helduz, basorantz abiatu naiz zelaian gora.	205
ukabilkada esku bilduaz emaniko kolpea	Nik hori aprobeztatzea pentsatu dut ukabilkada bat emateko, baina ez da beharrezkoa izan.	171
ukuilu korta	Ukuilura iritsi naiz zalditegian behorrek ikusi ondoren.	223
ulu uhuria, oihu luze tristea	...Alaik ulu negargarria egin du begiak itxiz eta muturra ilbeteak argitutako zerurantz altxatuz.	205
urdanga emagaldua, prostituta	Eta egiazko hire ama urdangak zer egin zinan ba? E, zer?	78
urratu tarratada egin	Minaren minez, urratu egin du kamisoi odoldua eskuez gerriaren alturan.	85
urruma kurruka, katu-usoen erako soinu	Kexuzko urruma dardarakorra egin eta eseri egin da, beti niri so.	125
uzkurtu batuta bezala, bere baitan bildu	Hau irakurtzean, lehengoak ez bezalako malkoak isuri ditut bihotza uzkurtuta .	135
xamur goxoa, biguna, maitekorra	Inoiz izan ez dudana ama xamurraren itxura hartu diot eta barrena bakez bete dit: on handia egin dit.	162
zalditegi zaldien korta, ukuilua	Musu eman ondoren zutitu eta zalditegira abiatu naiz.	225
zaparrada uri-jasa	Eta ni leihotik begira nengoenean, zaparrada handia hasi zen zerutik lurrera ziztu bizian jausi beharrean...	57



zapladatxo zaplaztekoa, masailekoa	Oso ongi egin duela adierazi eta zapladatxo batzuk eman dizkiot sorbaldan.	125
zeharo erabat, guztiz	Eta ohean eserita kartazala ireki dudanean, zeharo harritu naiz barruan zegoena ikustean.	135
zehazgaitz zehaztugabea	...adin zehazgaitza duten horietakoa.	101
zela zaldien jesarlekua	(zaldiaren zela ere lurperatu du arrastorik ez dadin egon eta zaldia bera kanpamentura eramango du beren zaldiekin nahasteko...	177
zerraldo hilotz, hilda	Oinak izoztu omen zaizkio gauean eta bidean zerraldo geratu omen da.	116
zirkinik (ez) mugitu gabe	Haurra antxumetxoak bezala jaio da odoletan blai eta geldirik geratu da ohe gainean bere amaren hanken artean, zirkinik ere egin gabe	85
zirrara emozio	...galdetu nion irrikaz, bat-batean izandako ideia hark zirrara handia sortuz.	100
zorabiatuta mareatuta	...egundoko kirtenkada eman dio buruan Antonio gizagaixoari, erdi zorabiatuta utziz eskuak aurpegian.	173
zoritxarrez tamalez	Baina, zoritxarrez , egunerokoaren aurrean luzaro idazten egongo naizela aurreikusten dudanean, ez da normalean gauza atseginik idazteko izaten.	83
zuhur zentzuduna, prudentea	...neure burua hain bakarrik ikusteak zuhurragoa izaten irakasten didala.	47
zurbil kolorge, zuri	Ana ere eseri da, bere logelatik jaitsita eta oso itxura txarra hartu diot zurbil zegoelako.	84